

EZKIOKO ITSUAREN BI BERTSO-SAIL EZEZAGUN

Nire adiskide Luis Baraiazarrari, merezi onez

Sarrera

Hemeretzigarren mendeko eta are hogeigarren mendeko euskarazko bertsopaper asko galdu dira. Txirritaren zenbait bertsopaper gordetzen badira ere, bertsopaper mordoak galdu dugu, inolako dudarik gabe. Ez dago Antonio Zavalak Jose Manuel Lujanbio "Txirrita" (1860-1936) eskaini zizkion liburuak eta artikulua irakurri besterik galeraren berri jakiteko. Duela pare bat urte Txirritak 1914en ateratako bertsopaper baten gaineko auzi baten berri eman zuen Mikel Taberna idazle nafarrak. Auzi horretan esaten zenez, Legasako Tomas Alkainek Txirritari bertsuak jartzeko agindu zion eta honek hamalau bertsoko kanta-papera ateratzeagatik biak akusatuak izan ziren. Euskarazko bertsoen gaztelaniazko itzulpena Iruñeako artxiboan¹ gordetzen bada ere, jatorrizko euskarazko bertsuak galdutzat ematen dira² (Taberna, 2018). Eta zenbat holako negargarritzko galera?

¹ Nafarroako Errege Artxibo Nagusian (NEAN) delakoan gordetzen dira agiriak.

² Mikel Tabernak aipatutako artikuluan ikus daitekeenez, *Diario de Navarra* 1916 urriaren 31an, hirugarren orrialdean berri hau irakurtzen da: "El conocido versolari "Chirritac –creemos que es de Hernani–, Jose Manuel Lujanbio, y el vecino de Legasa Tomas Alcaine ocuparon ayer el banquillo ante el tribunal de Derecho, acusados de los delitos de injuria y calumnia al alcalde pedáneo que fue de Legasa Eusebio Babace".

Kontu ezaguna denez, bertso-saltzaileen arteanitsuak baziren. Itsu hauek bertsoak saltzeko jendetza handia biltzen zen egunak aukeratu ohi zituzten: Herriko jaietan, azoka-egunetan, ganadu-ferietan, Urkiolako san Antonio egunean, san Isidroetan... Itsu hauetako zenbaitek bertsoak kantatuaz batera bibolina edo zerrebata ere jotzen zuten. XIX. mendean eta are gerora ere, itsuen ogibidea bertsopaperak zen, Euskal Herrian zein bestetan. Itsu hauen berri Julio Caro Barojak eman zuen *Ensayo sobre la literatura de cordel* bere liburu ezagunean. Gaztelaniaz *romance de ciego* edo *coplas de ciego* hitzek argi adierazten dute nortzuk ziren kanta paperen saltzaileak.

Artikulu honetan Ezkioko itsuaren bi bertsopaperen berri eman nahi dugu. Antonio Zavalak Ezkioko itsuaren hiru bertsopaperetako bertsoak argitara eman zituen *Pastor Izuela (1780-1837) Ezkioko ta Segurako itxuak* liburuan (Zavala, 1971). Hiru bertsopaper horietaz aparte, beste bi bertsopaperetan aurkitzen ditugun bertsoak eskainiko ditugu gure artikulu honetan.

2. Itsuak bertsopaper saltzaile eta bertsolari

Itsutasunak, begibistakoa denez, pertsonaren laneko gaitasuna ikaragarri mugatzen du. Gerratik bizirik etxeratzen ziren gazte sasoikoetariko asko ezindurik, elbarriturik eta are itsuturik etorri ohi ziren. Gazte ezindu hauetako zenbaitek bertsopaperak saltzen jarduten zuten. Antonio Zavalak bertsopaperen salmentari buruz ohar hau egiten zuen “El bersolarismo” artikuluan (Zavala, 1968, 276 or.):

En cuanto al bersolarismo escrito, con su órgano de difusión, el bertso-papera, nada puede ponderar mejor su fuerza y vitalidad que decir que en un pueblo pequeño, de mercado tan reducido que toda publicación en euskera viene a ser una arriesgada y quijotesca aventura económica, estas hojas volantes, sin ayuda de ninguna entidad pública, se han mantenido durante unos cien años.

Los encargados de la venta eran, de forma más bien esporádica los mismos bersolaris; y, de forma más habitual, algunos inválidos, que, incapacitados por su ceguera, falta de manos o cualquier otro achaque para ganarse la vida, recurrieron al bertso-papera, y lo vendían en plazas, mercados y fiestas. Sería un negocio exiguo, pero les daba al menos para ir viviendo, lo que en el caso del vascoence no es ciertamente poco.

Bertsopaper saltzaile itsu horietako bi Asteasuko bi anaia izan ziren Pedro Mari eta Jose Inazio. Bi hauek, ordea, ez ziren gerran itsutu zirelako, jaiotzaz itsu jaio zirelako baizik. Antonio Zavalak bi itsu bertso-saltzaile eta bertso-jartzaile hauen zazpi sail *Alzo'ko Imaz bertsolaria* liburuan, 317 orrialdetik aurrera argitara eman zituen. Zavalak bi anaia itsu hauen gainean hauxe dio (Zavala, 1967, 317 or.):

Asteasu'n lagunik geienak itxuak ziran famili bat izan zan garai artan. Bizi-modua ateratzearen, modu askotara saia bearko zuten noski. Modu oietako bat, bertso-saltzea izan zan. Besteren bertsoak salduko zituzten noski, bañan bai beren buruari ateratakorik ere. Auetako zazpi bertso-sail arkitu ditugu: bost Pedro Marirenak; beste biak Jose Inaziorenak.

Asteasuko bi anaia itsuak bezala, Segurako itsua ere bertso-jartzailea izan zen. Beste asko, ordea, eztañri ona ez zutenez gero, ez ziren egokienak bertsopaperak saltzen ibiltzeko. Gerran itsutuak ziren mutil errukarri askok, lanerako ezindurik zeudeenez gero, eskean ibili beharra izaten zuten. Pedro Mari Otaño (1857-1910) bertsolariaren “Mutil koskor bat itsu aurreko” kantu ospetsuko protagonista eskale itsu bat da, bi makuluren gainean, “kale ertzean inora ezin joanean”, Jainkoaren izenean limosna eskatzen duena. Eskale hori gerran itsututakoa da. Hona, diogunaren erakusgarri, hirugarren bertsoa:

Eta jarraitu zuen esanez
lengo gerrate denian,
ni aurre xamar ibiltzen nintzan

nekatu gabe aisa igoaz
 aldapik luzienian,
 etzan burura asko etortzen
 gu ala gebiltzanian,
 gero limosna eskatutzerik
 Jainkuaren izenian.

Eskaleitsuak aipatzen duen gerratea, karlistadetakoa izan behar du: bigarrena edo, beste zenbaiten arabera, hirugarren gerra karlista (1872-1876). Eskaleitsuak gerratean ausarta zen, beldurgabea, “aurre xamarrean” ibiltzen zena... larriki zauriturik eta itsuturik gelditu zen. Holako zorigaitzak gerra guztietakoak dira, aldi eta alde guztietakoak. Gabriel Garcia Marquez idazleak “Las Malvinas, un año después” artikulua argitaratu zuen 1982an Arjentina eta Britainiaren arteko gerra bukatu ondoren soldadu arjentinarrak bati gertatutako kasu erdiragarri bat kontatzen du (García Marquez, 1983):

Un soldado argentino que regresaba de las islas Malvinas al término de la guerra llamó a su madre por teléfono desde el Regimiento I de Palermo, en Buenos Aires, y le pidió autorización para llevar a casa a un compañero mutilado cuya familia vivía en otro lugar. Se trataba –según dijo– de un recluta de 19 años que había perdido una pierna y un brazo en la guerra y que además estaba ciego. La madre, feliz del retorno de su hijo con vida, contestó horrorizada que no sería capaz de soportar la visión del mutilado y se negó a aceptarlo en su casa. Entonces el hijo cortó la comunicación y se pegó un tiro: el supuesto compañero era él mismo, que se había valido de aquella patraña para averiguar cuál sería el estado de ánimo de su madre al verlo llegar despedazado.

Etxera telefonoa jo eta amarekin hitz egiten duen soldaduak bere amak nola hartuko lukeen beste gazte elbarritu eta itsu bat jakin nahi du. Gazte elbarritu eta itsu hori, Pedro Mari Otañoren “Mutil koskor bat itsu aurreko” bertso-sailean beza-

la, amarekin hitz egiten duen soldadua bera da. Era horretako gertaera erdiragarriak ugariak izan behar zuten. Antonio Zavalari Arantzazuko aita Jose Inazio Lasak bere osabaren gaineko argitasun hau eman zion (Zavala, 1971, 87-88):

Jose Maria Lasa nere osaba zar bat izandu zan, ni bezela Matxinbentan jaioa. Emezortzi urterekin karlistetara joan zan, bigarren gerrara, ta bista galdu zuan. Ondoren, erriz erri ibiltzen zan, bioliña joaz ta bertso kantari, kanta paperak saltzearren noski. Orrela ateratzen zuan bizimodua. Oso eztarri onekoa omen zan. Aren bertso bat ikasi nuan:

Apellidua Lasa det eta
 Jose Mari izena,
 Matxinbentako barriotikan
 soldau atera nintzana,
 suertosua etzan izandu
 nere gerraren azkena:
 bala txar batek begik kenduta
 itxu gelditu nintzana.

Delako Jose Mari Lasa hori, Pedro Mari Otañoren bertsoetako itsu eskalea bezala, karlistetan gerran ibili ondoren begibista galdu zuen eta, eztarri ona zuenez, bizimodua ateratzen zuen bertso paperak salduz. Badira gure literaturan gerratik itsuturik etorritako kasu gehigoren adibideak. Ezaguna da batez ere Iparraldeko tradizioan “Solferinoko itsua” kantua. Solferinoko batailan, 1859ko ekainaren 24ean, itsututako soldadu gazte baten auhen tristeak kontatzen dira kantuan. Kantuaren doinua amodiozko kantu ezagun batena da “Ene maitea, barda non zinen nik bortañoa joitean?”. Kantatzeko egina zen “Solferinoko itsua” olerkiak 1864 urteko Lore Jokoetan Saran bigarren sariarekin saristaua izan zen. Bigarren saria izan bazuen ere, eskarazko Lore Joko guztietako kanturik eder eta zabalduenetakoa izan da: herriak beretu duen kantua.

Ezkioko itsu bertso jartzailea gerran itsututakoa izan zen edo jaiokeraz zen itsua? Edo gaisotasun edo beste istripu baten ondorioz itsututakoa zen? Galdera hauentzat ez daukagu erantzunik.

3. Zer dakigu ezkioko itsu bertso-jartzailearen gainean?

Ezkioko itsu bertso-jartzailearen gainean dakigun guztia *Pastor Izuela (1780-1837), Ezkioko ta Segurako itxuak* liburuan Antonio Zavalak esaten dituen argitasunak bakarrik ezagutzen ditugu. Liburu horretan Ezkioko itsuaren gainean dagoen daturik interesgarriena herri bereko Etxaluzeko Inazio Mendiguren pasarte honetan jasotzen da (Zavala, 1971, 89 or):

Ni amabi urtekoa nintzala il zan gure aitajauna. Nik uste, 84 urte izango zituan orduan, nik orain daukadan edadea. Ari entzuna daukat itxu bat izana zala Ezkion. Eta Aranburun bizi ote zan gañera. Bañan ez dakit familiakoa zuten. Mutilzarra izan bear zuan. Soñua jo ta bertsoan egin, ala ateratzen zuan bizimodua. Eztaietara ta abar deitzen omen zuten. Zer soñuklase jotzen zuan ez nuke esango, bañan eskukoa ote zan nago. Etxera berandu erretiratu ta onela esaten omen zuan gure aitajaun orrek: Bai, or izan gera itxuaren bertsoak entzuten. Bañan oiek danak gu jaijo baño askoz lenagoko kontuak dira.

Ezkioko itsuaren izen-deiturak ez ditugu, beraz, ezagutzen ez eta noiz jaijo eta hil zen. Ezkioko itsuak, ordea, Segurakoak baino zaharragoa izan behar zuen, hau da, 1824 baino lehen jaiotakoa. Antonio Zavalak beste argitasun bat ere badakar:

Ezkiokoak kantari onaren fama izana zuan, beraz. Ta bes-terenak kantatzen ez-ezik, bere-bereak asmatzen ere baze- kian. Izan ere, itxu oietan baziran, berak bertsolari ez izanik, bertsoak besteri jarri arazten ziotenak.

Ezkioko itsuak, seguru asko, bertsoak jartzen eta kantatzen ateratzen zuen bizimodua, eztarri onekoa zelako. Antonio Za-

valak biltzen duen beste testigantza batek argitasun berriak dakartza:

Ezkiora joan ta bertako aiton amonai galdezka asi nintzan. Santa Luzia ballarako eta Miranda etxeko Jose Joakin Azpiatzuk esan zigun aditzera bazuala itxu orrana; Aranburu baserrikoa ote zan gañera, edo an bizi zana beintzat; berez baserri ortakoa bazan, Zabala apellidukoa izango zala, zerragotea esaten zitzaion esku-soñua jotzen zuala.

Ezkiokoitsuak jotzen zuen esku-soinua zerragotea zela esaten da pasarte horretan. Zer ote da zerragotea? Euskaraz izen-aldaera askotxo hartzen ditu hitz horrek: zerragotea, zarrabetea, zerrebetea txarrabetea... Arrabita hitza ere hitz beraren aldaera da. Eskuarekin bueltak emanez jotzen zen musika tresna bat zen: “Zanfoña, instrumento de cuerda accionado por una manivela”. Musika tresna hori batez ere itsuek erabiltzen zuten gure literatura idatziko Eusebio Maria Azkuek eta Urruzunok dokumentatzen dutenez.

Etxaluzeko Inazio Mendigurenek zioenez, Ezkiokoitsuak “mutil zarra izan bear zuan”. Guk lan honetan argitaratzen dugun lehen bertsopapereko sailak mutil zaharren kontuak aipatzen ditu. Bertsogilea bera ere mutil zaharra denez gero, bere buruaz barre egiten du. Argi baino argiago dio bigarren zein hurrengo bertsoetan. Hona bigarrena bakarrik: *Mutil zarraren contuac/ Jaquin beatic munduac/ Farra eraguiteco sortuac, / Gu bezelaco tontuac*. Uste dugu Antonio Zavalak argitara eman zituen hiru sailek eta gure biek XIX. mendeko bertso-jartzaile baten gaineko argitasun askorik ez badute ere, neurri batean garai hartako bertso gai, euskara eta umorearen adierazgarri badirela. Ezkioko gure bertsolari mutil zaharrak ez du Xenpelarren indarririk ez eta Txirritarenik ere. Bost bertso sail, ordea, ez dira gehiegi bertsolari baten egiazko gaitasunak neurtzeko. Beste sailik agertuko balitz, hobeto geundeke iritzi tajuzkoago bat emateko.

4. Gure bertso sail bien gainean

Ian honetan bi bertso sail emango ditugu argitara. Lehen sailak “Verso berriac” izenburu orokorra darama; bigarrenak, “Amar mandamentu santuen canta berriac” eta azpituulu bezala “Ezkiuaco ichuac paratuac”. Lehen saileko lehen bertsoan “Ez-quiouaco ichuac jarriac” argitasuna dator. Ezkiokoitsuak, itxurak direnez, beti azaltzen zuen bere egiletza bertso-paperean.


Guk bi sailok argitaratzean jatorrizko ortografia eta puntuazioa errespetatuko ditugu. Inprenta hutsen bat zuzenduz gero, oinoharrean jarriko dugu jatorrizko dokumentukoa. Gure bi kanta paperak Pierre Lafitte euskaltzainaren fultsean gordetzen dira³.

Euskarari gagozkiola, bigarren saila da gure ustez interesgarriena. Hona bigarren sailaren gaineko zenbait iruzkin labur. Hitzik eta esapiderik interesgarrienetakoa 8. *picardian eta jocoan* horretan *pikardian* “kalte eginez” dela uste dugu. “Kazkabarrak pikardi handiak” egin dituela esaten bada Gipuzkoan, *pikardi handiak* “kalte handiak” esan nahi du; Beste esaldi interesgarri bat 11. *Gure Jaungoico guztien jabeari/ eskualdiac artzea* da. Esaldi hori bosgarren aginduari dagokio. Jaungoikoaren bosgarren agindua, Detxepare zaharrak zioen bezala, hauxe da: *Ebor erbo eztaçala ez etare gaycetsi*. Inor ez hiltzea da Jaungoikoari eskualdiak ez hartzea, gu hiltzeko boterea Jaungoikoak bakarrik baitu. Eskualdia, beraz, *eskualdia* “boterea” edo “ahala” da. *Eskualdiac artzea* “boterea hartzea” da. Jaungoikoari ez zaio eskualdirik hartu behar, beraz, ha-maikagarren bertsoan esaten denez, bera baita gudan botere guztia duena. 18. bertsoan *murmurante* hitza aurkitzen dugu, Mogelen *irakurlante* edo *kulpante* bezala -ante atzizkia duela. 19. *cariño bidegabeac* horretan adjektiboa dugu *bidegabeac*, modu normalago batean *bidegabeko kariñoac* da, modu horretara ikusten dugu aurrerago: 15. *bide gabeco interesac*. Sintagmarik interesgarrienetakoa, gure ustez, 22 *neque ta trabajuac* da. Sintagmako honetako hitz biak sinonimotzat har li-

³ LAF 401-016 (lehen alea 8-43 argazkian, bigarren alea 12-43 argazkian).

tezke. Iparraldeko autore zahar zenbaitek, Axularrak eta abarrek, *neke-trabaiuak* erabiltzen dute, Hegoaldekoek, *neke-trabajauak*. Xenpelar zein Udarregi bertsolariek, esaterako, gure Ezkioko itsua baino hamar bat urte behintzat gazteagoek, erabiltzen dute. Hona Xenpelarren adibidea: (Xe 315) *Neke-trabaju/ penaz beterik/ alabak munduan azi,/ gurasuari esker gaiztua/ orra nik adierazi.*

Eman ditzagun, besterik gabe, bi bertso-sailok jatorrizko bertsopaperetan datozen bezalaxe.



VERSO BERRIAC

1

Amasei verso berriac⁴
Ezquioaco ichuac jarriac;
Ondo arturic neurriac,
Gutzizco farregarriac.

2

Mutil zarraren contuac,
Jaquin beatic munduac:
Farra eraguiteco sortuac,
Gu bezelaco tontuac

3

Mutil zarra edo donadu,
Ibilli arren ondradu:
Azqueneraco sobratu⁵
Ya guc ere degu probatu⁶.

4

Mutil zarraren⁷ pague⁸,
Ondo estatu bajue:
Azqueneraco zacue,
Norc ondo bete badue.

5

Mutil zar eta pobreac,
Nequez izango dira nobleac:
Cillarrac edo urreac,
Ezpaditu lenago gordeac.

⁴ Bp *berri*.

⁵ Bp *sobraru*.

⁶ Bp *Ya gueurc degu probaru*.

⁷ Bp *zarrareu*.

⁸ Bp *pagüe*.

6

Izan ezquero dirue,
Ondo esango digue⁹,
Bestela desengañue,
Aussen dec vicimodue.

7

Gazte guiñala munduan,
Aicea genduen buruan:
Orain jausi¹⁰ naiz contuan
Provehuric eztan orduan.

8

Mutil zarraren ventea,
Ecer badegu quentzea;
Beguiria farrez gentea,
Onequin daucat penea.

9

Mutil zar errucarriac,
Munduaren farragarriac:
Chiquiac eta andiac,
Guri burlaca guztiac.

10

Arropa zarraren zuloti,
Naiz narrua aguiiri:
Componzaleac urruti,
Ala ere iñorc ez erruqui.

⁹ Bp *digüe*.

¹⁰ BP *jauci*.

11

Illoba chiquiac aurreti,
 Jarritzen dira nagusi:
 Gaucea ezpadue ugari,
 Zaarric ecin icusi.

12

Ezcondu gabe munduan,
 Badira gure moduan:
 Cergatic berac nai duan,
 Ez da cer esan orduan.

13

Nayago izan bacarric,
 Artu gabe eceren carguric:
 Jauna serbitzeagatic,
 Eztago gauza oberic.

14

Beste mundura bidea,
 Ya aurrera dijea¹¹:
 Ala ere ez nai illtzea,
 Au vicimodu tristea.


15

Munduan gueran artean
 Izan humill eta paquean:
 Eternidade batean,
 Ceruan descansa gaitean.

16

Beguiraturic Jesusi,
 Cer pasa zuen gugati:
 Amatu bera gogoti,
 Guacen Cerura munduti.

¹¹ Bp *digea*.



AMAR MANDAMENTU SANTEEN GANTA BERRIAC,

EZKILAKO ICHUNG PARATUAC.

1
Pena dezagun nere ezizian
Ez diran Mandamentuac;
Aiz Ezerac hazi ezazu;
Dien ezertutan;
Sintaco mundian zuzelan ezitac
Moises Santiac.

2
Arizon etzan etzerri Cristu
Gu solvatorea mundiora;
Aiz Eternaco inoxtionatu osan
Buzenre legu Santia;
Cez mundian vici bezar gurestian
Irabizten Gura.

3
Mandamentuac nure ditacle
Junguicovos leguan,
Lendo hici hera amito.
Gaur gurtien gauran;
Cezpale dazco nre diogun
Cezuan eta lurrean.

4
Nere ezizian gauden firme
Artu gurtidura lotran,
Nure gobe dolo eta
Junguico falosen leguan;
Zeri gurtinetan iran ez guretan
Eternadur lurrean.

5
Coslado nola eguiten diran
Mandatu jarmentuac,
Eguzitza justicia
Ez loquera obligatuac;
Anima baten ez lallo deian
Aizra endo corderac.

6
Ez edo lot ezan dezagun
Cezur no duan munduan,
Progresa ta goeren sinuac
Gulu pabre munduan;
Bese auterac quera teoluric
Ez dega itango veduan.

7
Cezua gurtien obligatuac
Junguicovos leguan;
Jai egueran arez zuzentaco
Isala aldoguon;
Prentu gobe jai ezetan
Ez jandura lurrean.

8
Jai eguan pira beru dia
Junguico servituan;
Ez jai, ezta, doreta clac
Pezidan eta peiora;
Auzo ezitan fahaten degu
Nere iztan munduan.

9
Gurese ere badegote
Munda onetan ez eguin,
Beza Junguicovos, jantzi
Coslado Junguicovos;
Cezurac bilde emana
Beza ezemplo onquin.

10
Unico ez eta rimita
Cosladoarequin munduan,
Cezan gurtien estimataz.
Jantzi nai diren moduan;
Beldu conta cecozat ez
Ez paradiso diogun.

11
Gurtie delfa andia da
Izitan baten bestea,
Izuel ezan dezoquet
Vintaco deztetan;
Gure Junguico gurtien jaihera
Ez salduz astera.

12
Gertoto edo venganza chaeric
Ez diragana chopi;
Gure legun Junguico
Daz dezoque errupia;
Boscha nola, ezpera degu
Logandura ceruic.

13
Ezta dezagun leguazana
Vintetan Jantzi,
Lurreaco peccatuac
Arren ez gurtien tzeri;
Artigi on costra eraguniaz
Segura oten nurei.

14
Oxioche apartatue
Legu onquin ilali,
Cosladoarechare hollin bodege
Cuzi dezagun bestia;
Gusto lalazac pona hitor
Gurti rullian etzerri.

15
Progresa ez denon;
Uzi dezagun paupera;
Jehove bere vorodolati
Izitan dignu atzen;
Bide goben irretarac dia
Amarratuz ceteran.

16
Restitudo eguin dezagun
Vai gurtia munduan;
Cuzo ezta rertutuan
Cez paradiso ez duan;
Ez salduen lallo bagera
Junguico degu veduan.

17
Munda onetan gure paritaco
Tuzitaco falora;
Nore beza falac bestia mundan
Coslado ezta munduan;
Dato gurtien Junguico gaita
Junguico eguzitac.

18
Junguico eta mirramantico
Vici autete coztuan,
Auzo salal mingia luro
Izilli arez munduan;
Kuzero coztac itango dira
Iz beaz degun ordun.

19
Drehan eztaez analiz dia
Pezitango lorde,
Gure amuse solvataco
Oyoz ez dia ezta;
Uzi dezagun vintitaco
Cariño bido gaurac.

20
Progresa ez compahilican
Ez degu beru dezo,
Ezgan dagan gurtie tri
Munduan auzo eguzi;
Gesta gurtien dufante
Lurrean ihor etzaga.

21
Jantzi ezaten dignarequin
Coslado irin gaiten;
Coslado eztaez destertatue
Amorice ta paupera;
Cuzer ez dega duna itango
Noregi egunes lurrean.

22
Atzagan gurtie ezta
Munda onetan coventi,
Gure nequit ta trabajoac
Olxeritaz Jantzi,
Beguizate dezagun areca
Beldu zori oneri.

23
Mandamentuac jantzi viera
Nai dituzte gurtie,
Gure Junguico eguzitza
Gurtie Gureta amito;
Prentia da auzo eguzia
Bastela trin solvato.

24
Progresa ez ana dezagun
Gure peccatorac munduan;
Coslado falatu gabe
Auzo beza munduan;
Auzo egiten lallo bodege
Sartico puzca Guran.

**AMAR MANDAMENTU SANTUEN CANTA BERRIAC
EZQUIOACO ICHUAC PARATUAC**

1

Pensa dezagun nere cristauac
Cer diran Mandamentuac,
Aita Eternoac bere escuz
Dira escrituac;
Sinaico mendian recibitu cituan¹²
Moises Santuac.

2

Artean etzan etorri Cristo
Gu salvatzera mundura,
Aita Eternoac manifestatu zuan
Beraren legue Santua;
Cer modutan vici bear guenduan
Irabazteco Cerua.

3

Mandamentuac amar dirade
Jaungoicoaren leguean,
Lenda bici bera amatu
Gauza guztien gañean;
Cergatic danoc zor diogun
Ceruan eta lurean.

4

Nere cristauac gauden firme
Artu genduan fedean,
Nastu gabe idolo eta
Jaungoico falsoen leguean;
Zori gaiztocoac izan ez gaitean
Eternidade batean.

¹² Bp *citua*c.

5

Cuidado nola eguiten diran
Munduan juramentuac,
Eguiaz eta justiziaz
Ez baguera obligatuac;
Anima batec¹³ cer balio duan
Atera ondo contuac.

6

Ez edo bai esan dezagun
Cristoc nai nuan moduan,
Progimoa ta gueren animac
Galdu gaberico munduan;
Beste ascoren quezca moduric
Ez degu izango orduan.

7

Cristau guztioac obligatuac¹⁴
Jaungoicoaren leguean,
jai egunetan meza entzuteco
Iñola aldegunean;
Premia gabe jai osoetan
Ez jardutea lanean.

8

Jai egunac pasa bear dira
Jaunaren servicioan,
Ez, jan, edan, deversio char
Picardian eta jocoan;
Ascoc onetan faltatzen degu
Nere ustean munduan.

¹³ Bp *baten*.

¹⁴ Bp *obligatuae*.

9

Gurasoac ere badaucate
 Mundu onetan cer eguin,
 Beren umeac mantendu, jantzi
 Cuidado Dotriñarequin;
 Ceruraco bidea emanaz
 Beren ejemplo onaquin.

10

Umeac ere vici zaitezte
 Cuidadoarequin munduan,
 Ceren gurasoac estimatuaz,
 Jaunac nai duen moduan;
 Bestela contu cerontzat ere
 Cer paradero dagoan.

11

Gutziz delitu andia da
 iltzea batat bestea,
 Igual esan dezaquet
 Viotzaz deseatzeta;
 Gure Jaungoico guztien jabeari
 Escualdiac artzea.

12

Gorroto eta venganza charric
 Ez inorgana iduqui,
 Gure lagun progimoa
 Izan dezagun erruqui;
 Bestela nola espera degu
 Lagundutzia cerutic.

13

Esca deyogun laguntasuna
Viotzetican Jaunari,
Lujuriaco pecatuetan
Arren ez gaitean erori;
Aragui oni contra ere eguiñaz¹⁵
Seguitu obra onari.

14

Ocasiotic apartaturic
Lagun onaquin ibilli,
Costumbre charric¹⁶ baldin badegu
Utzi deyogun bertati;
Gusto laburrac pena luceac
Guero ezditzan ecarri.

15

Progimoaren ondasunari
Utzi deyogun paquean,
Jabeac bere vorondateti
Ematen digun artean;
Bide gabeco interesac dira
Animarentzat caltean.

16

Restitucio eguin dezagun
Vici guerala munduan,
Gausa ostuac errematean
Cer paradero oy duan;
Descuidatzen baldin baguera
Jaquingo degu orduan.

¹⁵ Bp *eraguiñaz*.

¹⁶ Bp *charic*.

17

Mundu onetan gauza gaiztoac
 Testimonio falsoac,
 Norc bere faltac besteri ezarten
 Cembait eztira mansoac;
 Baña guztioac juzgatuco gaitu
 Jaungoico eguiazcoac.

18

Gezurti edo murmuranteac
 Vici zaitezte contuan,
 Aua zabal mingaña luce
 Ibilli arren munduan;
 Guero contuac izango dira
 Ill bear degun orduan.

19

Deabru charrac ematen ditu
 Pecaturaco bideac,
 Gure animac salvatutzeco
 Oyec ez dira obeac;
 Utzi ditzagun viotzetaco
 Cariño bide gabeac.

20

Progimoaren compañiarican
 Ez degu bear deseo,
 Eraman daigun gurutze ori
 Munduan artu ezquero,
 Gusto guztiac dituanic
 Lurrean iñor eztago.

21

Jaunac ematen digunarequin
Contentu izan gaitean,
Codicia charrac desterraturic
Amorioz ta paquean;
Guero ez degu damu izango
Nasqui egunen batean.

22

Atseguin guztiac eztira
Mundu onetan conveni,
Gure neque ta trabajuac
Ofrecituaz Jaunari,
Beguiratu deyogun arren
Betico zori onari.

23

Mandamentuac puntu vitara
Nai dituanac guardatu,
Gure Jaungoico eguiazcoa
Guztien Gañean amatu;
Precisoa da ausen eguitea
Bestela ecin Salvatu.

24

Progimoa ere ama dezagun
Guere personaren moduan,
Caridadea faltatu gabe
Ascoc becela munduan;
Ausen eguiten baldin badegu
Sartuco guera Ceruan.

5. Azken ondorio bezala

Gure lantto honetako helburu nagusia XIX. mendeko bi bertso-sail ezezagun argitaratzea izan da. Bi sailok Ezkioko itsuak atereak dira, bata, mutil zaharren gainekoa, eta, bestea, hamar mandamendu santuen gainekoa. Bi bertso sailok ahalik eta modurik fidelenean ematea izan da gure helburu nagusia. Gure lanaren osagarri eta aberasgarri bertsopaperen argazki bat ere eskaini nahi izan dugu.

Ezkioko itsuaren zein beste bertso jartzaile itsuen gaineko argibide nagusiak Antonio Zavalaren Auspoa liburutegiko aleetan aurkitzen dira. Euskaraz dugun bertso-altxortegi nagusia Auspoa denez gero, handik hartu ditugu aipamen asko. Guk lan honetan hondar-ale berri bi gehitu nahi izan ditugu, Ezkiogako itsuak ateratako bi bertsopaper. Horra gure asmo xumea.

Ez dago dudarik bi bertsopaperetan jorratzen diren gaiak XIX-XX. mendeetako hainbat bertsopaperetan ematen direla. Ez gara saiatu lan honetarako horien kidekorik aurkitzen. Neurri aldetik ere gure bi bertsopaperetako sailek badute zer aztertu.

Bibliografia

- CARO BAROJA, Julio (1969): *Ensayo sobre la literatura de cordel*. Revista de Occidente.
- GARCÍA MARQUEZ, Gabriel (1983): “Las Malvinas, un año después”, *El País*, 6 abril 1983.
- TABERNA, Mikel (2018): “Txirrita epaileen jomugan (Legasa 1913-Iruñea 1916)”, *Bertsolari aldizkaria*, 110 zenbakia, 10-85.
- ZAVALA, Antonio (1967): *Alzo'ko Imaz bertsolaria*. Auspoa liburutegia 68-69-70.
- — (1971): *Pastor Izuela (1780-1837), Ezkioko ta Segurako itxuak*, Auspoa Liburutegia 106.

- — (1971): *Txirritaren bertsoak(I)*, Auspoa liburutegia 101-102.
- — (1971): *Txirritaren bertsoak(II)*, Auspoa liburutegia 103-104.
- — (1976): *Ustu ezin zan ganbara* : (Txirritaren zenbait bertso ta gertaera), Auspoa 126.
- —(1996): “El bersolarismo”, *Auspoaren auspoa I* (Itzaldiak/conferencias), Auspoa 338, 255-281.

Jabier Kaltzakorta